




215. zenbakia

2002-2-8

Goierritarra



udaberriauda 2002



zure ezkontzarako dena

trajeetan aukera paregabea



agirre
jantzidenda



tel, 943 88 19 97 - Nafarroa Etorbidea, 25 - geltoki aurrean Beasain

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



☎ 616 921 502 ☎

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN

orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Aimar Maiz, Mari Flor Mendizabal eta Igor Aristegi.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zabillaga 9. Oñati)

Tirada: 8 300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89


Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



GOIERRITARRA aldizkaria egoera larrian

Correos-ek bikoiztu egin du banaketa gastua

Urtarrileko aldapa benetan aldapatsua izan da GOIERRITARRA aldizkariarentzat. Izan ere, Correos-ek bikoiztu egin baitu banaketaren gastua. Orain arte, aldizkari bakoitzagatik kobratu izan diguna, bikoiztu egin du.

Gauzak honela, 2001. urtean 3.300.000 pezeta gastatu baditugu GOIERRITARRA aldizkaria etxetara iristeko, aurtan, 2002. urtean, bikoitza behar izango dugu, 6.600.000 pezeta/39.666 euro. Igoera kontutan hartuta 2002. urteko aurrekontua ia 26.000.000 pezetara/156.263 eurotara iristen da. Erakunde publiko (8.158.777 pezeta/49.035 euro) eta pribatu (1.278.772 pezeta/7.685 euro) dirulaguntzak eta publizitate sarrerak (12.000.911 pezeta/72.126 euro) 22.000.000 pezeta/132.222 euro izatera iritsi ziren 2001. urtean eta aurtan ere paretu ibiltzea aurreikusten dugu. GOIERRITARRA aldizkariaren orain arteko finantzabideekin ezinezkoa da aurrekontu hau betetzea.

Egoera honen aurrean, neurri berriak hartuko ditu GOIERRITARRA aldizkariak, derrigorrean, orain arte bezala, hamabostero euskara hutsez informatzen jarrai dezan.

Honela, Goierritik kanpo bidaltzen diren aldizkarien posta gastua kobratu egingo da. Espainiar Estatu osoan, hileko euro 1; hau da, 12 euro. Europan 24 euro eta Amerikan 36 euro.

Goierriko irakurleoi era laguntza eskera bera egiten dizuegu, posta gastua ordaintzea, hileko euro 1; hau da, urtean 12 euro. Ahal den harpidedun gehienek bere posta gastuak ordaintzeko, pertsona bat arituko da zuen etxetara telefonoz deitzen.

Guztion artean 4.000.000 pezeta eskuratzen ez baditugu, ezin izango dugu GOIERRITARRA aldizkaria kaleratzen jarraitu.

Argibide gehiago erdiko bi orrialdeetan (14-15) duzue.


Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro



Dopazo Lazkaoko PSE-EEko zinegotziak dimititu egin da

Arrazoi pertsonalak argudiatuz eta bizkartzainarekin ibiltzea gogorra gertatzen zaiola esanaz, Jose Antonio Dopazok, Lazkaoko PSE-EEko zinegotziak, bere kargua uztea erabaki du. Urtarrilaren 31ko udal bilkuran, komunikabide ugari bertan zirela, horrela adierazi zuen Felix Urkola alkateak. Lazkaoko kronikan duzue informazio gehiago.



Odolki kofradiaren kofrade berriak

Otsailaren 5an Beasaingo Odolkiaren Kofradiak ospatu zuen XVII. Biltzar Nagusian izendatu zituen ohorezko kofrade berriak, Txiki Begiristain, Josune Bereziartu eta Juan Maria Arzak izan ziren.



Ampo-Poyam kooperatiba MCCn sartu da

'Mondragon Corporacion Cooperativan' sartzea erabaki du Ampo-Poyamek. Ederfil, Hertel, Irizar eta Urolarekin batera, Hobelaren barruan sartu da Ampo-Poyam, Industria eremuan. Jon Agirre Ampo-Poyameko lehendakariak azpimarratu digunez, "nahiz eta orain arte MCCtik kanpo egon, kooperatiba munduko azpiegiturretan egon gara: Lagun Aro, Euskadiko Kutxa... Goierriko Eskolan Ingenieritza eskolaren sorreran ere hasieratik egon gara, Lortek lotura-teknologiaren Ikerketa Zentroan ere bai... Sarrera hau, beraz, sinbolikoa dela esan genezake. Beste kooperatibekin harreman gehiago eta zuzenagoa izango dugu orain".

Ampo Idiazabalen dago kokatua eta Poyam Beasainen. Aurrera begira bi egitasmo nagusitan daude murgilduta. Ampon "reingeneri" berria egiten ari da, egungo lan sistemetara egokitu eta bideratuko dute. Poyam berriz, oraingo instalakuntzak txikiegi gelditu zaienez, kokapen berrian pentsatzen ari da. "Inbertsio handi hauei aurre egiteko MCCren babesa edukitzea garrantzitsua da", Agirreren esanetan. Azkeneko bi urteetan 11,8 milioi euro inbertitu ditu Ampo-Poyamek. 375 langilek egiten dute lan bertan.

2001en, 46,9 milioi euro faktura zituen, %68 esportazioan, batez ere EEBB, Kanada eta Alemaniara.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



AUSO EGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✳ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✳ Berogailuak
- ✳ Iturgintza
- ✳ Zeramika erakusketa
- ✳ Bainuko altzariak
- ✳ Erreforma osoak



Goimenek antolatuta eta Bultz-Lanen eskutik

Enpresa sormen eta autoenpleguari buruzko hitzaldia eta ikastaroa

Autoenplegua helburua izanik, negozioak sortzeko bideak ezagutu nahi dituztenentzako hitzaldia izango da otsailaren 12an, arratsaldeko 5etan, Goiekin eta ikastaroa otsailaren 18tik aurrera. Batez ere, proiektu berria pentsatua edo garatua dutenentzako antolatu dira. Enpresa, autoenplegua eta negozio ideia; ekintzailearen izaera; gaur egun sortzen diren autoenplegu enpresa mota; lan merkatua, autoenplegurako laguntza eta egitarauak; enpresaren bideragarritasuna: autoenpleguaren kasua; enpresa proiektua; enpresaren arlo ezberdinen aurretiazko azterketa; autoenplegurako Ad-hoc heziketa; arriskuari buruzko gogoeta; eta arrakastaren eta porrotaren giltzak gaiak jorratuko dira hitzaldian.

Ikastaroa otsailaren 18tik aurrera

Otsailaren 12ko hitzaldia otsailaren 18tik aurrera egingo den ikastaroaren sarrera bezala aurkezten da. Hala ere, hitzaldira joaten dena ez da behartua egongo ikastaroa egitera; eta alderantziz, hitzaldira joaten ez denak ikastaroan parte hartu ahal izango du.

'Mikroenpresen sustatzaile berrientzako enpresa sortze eta kudeaketa ikastaroa. Bideragarritasun plana' da ikastaroaren izenburua. Bi asteko iraupena izango du ikastaroak, egunean 4 ordu. Ordutegia ikastaroan izena ematen dutenek erabakiko dute. Autoenplegutako sarrera; forma juridikoak, laguntzak; zerga ordainketak; merkatu azterketa; ingurugiro modulua; finantzaketa plaza; eta ekonomia-finantza arloak landuko dira.

Bai hitzaldia eta bai ikastaroa, dohainik izango dira. Bultz-Lan enpresak emango du. Informazioa gehiago lortzeko edo izenak emateko, Goiekira deitu behar da. 943 161831 edo 943161537 telefono zenbakietara deitu eta Lierni eta Ikerren-gatik galdetu.



Sasieta Mankomunitatearen zozketako irabazleak

Iazko Eguberrietan Sasieta Mankomunitateak zozketatxo bat egin zuen, galdetegi bat erantzun zutenen artean. Mila lagunetik gora hartu dute parte lehiaketan eta irabazleak hauek dira. Nekazaritza-turismoko baserri batean asteburu-ko egonaldia egokitu zaienak, guztiak ere argazkian, Pello Garaialde lehendakariarekin batera: Segurako Jesusa Alustiza, Beasaingo Isabel Mujika eta Ordiziako Justino Blazquez. Talasoterapiako zirkuituko bonoa irabazi dutenak, berriaz, hauek dira: Ane Barcenilla (Beasain), Puri Oiarbide (Segura), Jose Pedro Janeiro (Zumarraga), Imelda Martinez (Zumarraga), Irati Aldanondo (Lazkao), Sonia Aragozo (Legazpi), Itziar Olano (Legorreta), Leire Soto (Ordizia), Maite Rubio (Ordizia) eta Joseba Arruabarrena (Zaldibia).

Oinatz Munduate, Munduko ziklo kros txapelketan

Idiazabalgo Oinatz Munduate txirindulariak, Munduko ziklo kros txapelketan parte hartu zuen, otsailaren 2an, Belgikan, junior mailan. 53. bukatu zuen lasterketa.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**


Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



**MUJICA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

iBAi ONDO



AROZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Igor
Aristegi
Urkia

**"Egia esan,
zertarako
hainbeste
errebolta,
insumisio eta
matxinada,
badugu
nahikoa lan
gure burutxo
aldrebesa
konprenitu eta
harek
osasuntsu
irauteko
agintzen
diguna
betetzen".**

Mermelada&Benji ajentziako ikertzaile pribatuak aztarna guztiak tentuz behatu zituen, luzeki, baina deliberatzeko ez zuen ezinbesteko denbora baino baliatu. Ikertzaile izatez gainera institutoko irakasle da, eta horrek, orain egokitu zaion kasurako giltza polita eskaintzen dio. Diagnostikoa hitz gutxitan egin du: "Estamos transmitiendo modelos de sumisión bajo la apariencia de que estamos en un mundo muy rebelde". Alegia, gure burua errebeldeztat dakusgu, politagoa delako akaso errebeldia sumisioa baino (hau nik erantsi dut), azkenean oster, denok jauntxo bera gurtzen dugu. Hori da bederen Mermelada&Benji ajentziako ikertzaile pribatuak iluntze hartan, aztarna guztiak tentuz behatuta, han bildu gineno aurreratu zigun behin-behineko analisisa.

Egia esan, zertarako hainbeste errebolta, insumisio eta matxinada, badugu nahikoa lan gure burutxo aldrebesa konprenitu eta harek osasuntsu irauteko agintzen diguna betetzen. Finean inork ez baitu gure beharra aseko, bakoitzak bere ogibideari eskaini behar ahaleginik behinenak. Gehienetan, hala ere, humanoak baikara, ez dugu ondo asmatzen eta patxadan bizitzeko inolaz komeni ez zaizkigun izateak kargatzen ditugu gainean. Baina amigo, naturak ez du minik atsegin eta barrenak esfortzu handirik ez egiteko eskatzen digu; horregatik labaintzen zaizkigu gure asmo duinenak. Begira bestela nola gabiltzan, Demokratak mandoitsuak baino setatiago, Bakeza-

Komunean gustura, inoiz garbituko balute

leak gerraren abantailak neur-tzen, Iraultzaileak siko-tropiko-etan nahi du topatu (topatu!) bere utopia, Euskaldunak españolez erosoago, Abertzaleak aberria aurkitu ezinik (bidea polboraz markatu behar... nola itzuli bestela?), Komunistak akzioak noiz erosi begira, Kristauak ebanjelio erraustuen gainean dantzan, eta Punkiak zentru komertzialean goxokiak erosten.

Ahuldadeak berdintzen gaitu. Izan ere, maiuskula bereizgarriak erantziko bagenituzke, hots, izaki Adjektibatu izateko grina egoskorari uko egin eta gimnasia egiteari utziko bagenio... Pott! Finean, denok plan-ta berekoak. Bai, bai, igoalak. Bata ttipiako akaso, hura gizenago, hi pinpilin panpox beti (gero ikusiko dinagu elkar, zortziretan hire etxean), bai, egia da, eta ni bizardun, baina alkan-doraren neurria bakarria txo, $2+2=4$ eta $4\cdot2=8$. Nolanahi, besterik egongo bailitzan, gu ez beste, aho betean tabernako solasari eskaintzen dizkiogu hitzaspertuak, "begira Maritxuren titi berriak", "Txonik kotxeari

gona motza jarri dio", "musulmanak ez dira hain gaiztoak", "maite zaitut, batzuetan", "te-lebista kaka!"...

Sasoian egoteko ere gauza beretsuak behar ditugu: gora Festa! (instituzio egina, Seguridade Soziala bezala), eta Askatasuna noski. Ez dakigutela Askatasuna mugatu, Libre behar dugu izan, Libreee-ee, "gaur eta hemen", mistiko posmodernoak

eta tontoloak bezala, "gaur eta hementxe". Eta bihar? Bihar Lanera, jakina, nola Bizi bestela?... "Inuzentea haiz gero! Inork ezin dik Dirurik gabe Bizi". Hala bada, bedi Harentzat gure denbora preziatua, Berak merezi baititu gure izerdiak. Diruari zor diogu Bizitza (egia da, conforme, baina Bizitzak merezi al du? Ez al dugu ahanzen bihotz apalak eskatzen digun bizitza gureagoa?, ups, bar-katu). Tira tira, Lanera, denok Lanera... baina hau izan dadila sakrifizio bakarra! Gainerakoa, Ondo Pasatzen (oraindik Gazte izatearen pagotsa ukan badugu, adinean, izpirituan, atzeko patrikan edo hortzeriaren dizdiran), Libre. Tarteka-tarteka, momentuak hala eskatzen duenean, norberak ikusiko du, Demokrata, edo Euskaldun, Punki... baina tarteka bakarrik, elkar ezagutu dezagun: "Hi Txomin izango haiz? Bai, Abertzale, Bakezale eta Zopajale" (musulmanen Jainkoak baino atributo gehiago ez ditugu ba). Inork galdetzen badu, hordago. Bestela, Libre. Ez dugu tripako minik nahi. Nik ez behintzat.



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 LEGORRETA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Goierriko turismo eskaintza Madrilgo Fiturren

2001eko emaitzarekin pozik, 2002. urterako egitasmo ugari ditu Goiturrek

Madrilgo Fitur, Nazioarteko Turismo Azokan Goiturreko ordezkariak izan ziren Goierriko turismoaren berri emanez, Gipuzkoak zuen estandean. Gipuzkoa barnealdeko informazioaren artean, Goierri eskatzen omen zuten gehienek. Bestetan baino jende gehiago inguratu da Goierriren berri jakiteko helburuarekin eta gustura dago Nikolas Osinalde, Goiturreko ordezkaria.

Berrikuntza bat azaldu dute Fiturren: bost minutuko bideoa. Apirilean aurkeztuko da behin-betiko bideoa, telebistetan emateko.

8 touroperadore berriekin ere egoteko aprobetxatu dute Fitur. Goierriko hotelak eta 4 nekezalturismo etxe salduko dituzte bidaia agentzietan.

2001eko balantzea

Turismo kantitatearen aldetik pozik daude Goiturrekoak, 2000. urtekoa gainditzea lortu baita. 2001. urtean Gipuzkoako turismoa %6,5a jaitsi zen eta Gipuzkoako kostaldean, % 12. Gipuzkoa barnealdean, %2 igo zen. Ma-

drildarrak eta katalanak gutxiengo etorri ziren baina Euskal Herri barneko turismoa igo zen. "Ordiziako Artisaualdia eta Beasaingo Kilometroak oso ekitaldi garrantzitsuak izan dira informazioa banatzeko, asko nabaritu da", esan digu Nikolas Osinaldek.

Iaz ibilbideen foileto berria aurkeztu eta Interneten orrialde berria egin ziren. Pentsan zabalkunde handia izan du Goierri. Mundu guztiko egunkari ezberdinetan ateratzeaz gain, 12 aldizkarietan ere azaldu dira Goierri buruzko erreportaiak. Azkena, National Geographic aldizkarian.



Aurtengo asmoak

Nekazalturismo etxeen foileto berria, Goierriko 10 minutuko bideoa eta bono turistikoa dira. "Bono turistikoak Goierriko produktu turistikoak batuko ditu. Zeraingo Museoa, Zegamako Ehungintza tailerra, Segurako Eliza, Ormaiztegiko museoa, Beasaingo Igartzia jauregia eta Lizarrustiko parketxea ikusteko aukera izango da, beherape-nekin. Goierri bertako jendearentzako produktua ere izango da. Momentuz Euskadin ez da horrelako eskaintzarik". Goierriko bideoa Espainiar Estatuko telebista guztietan eskainiko dute. Zine aretoetan ere bai. 'Gipuzkoako hiria' lema erabiliko dute. Komunikabideetan eta merkatal guneetan zabalkunderik handiena egiten saiatuko dira.

Goierriko enpresekin beste saiakera bat egitekotan dira Goiturrekoak. Goierriko enpresetara kanpotik etortzen diren bisitarientzat lo lekua Goierri bertan eskainiz eta zenbait bisita eskainiz.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

URBITARTE
folare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Erlezain eguna ospatuko da otsailaren 17an, Zegaman


Gipuzkoako IV. Ezti lehiaketa eta I. Gozogintza lehiaketa jokatuko dira

Gipuzkoako erlezainek euren eguna izango dute Zegaman, otsailaren 17an. Erlezain Eguna antolatu dute Gipuzkoako Erlezain elkarteak eta Zegamako udalak elkarlanean. Gipuzkoako IV. Ezti lehiaketa eta I. Gozogintza lehiaketa jokatuko dira. Egunean zehar beste hainbat ekitaldi izango da, baita aurretik ere, erlezaintzari buruz ikas dezagun.

Orain arte, Gipuzkoako ezti lehiaketa, Usurbilen, Euskal Herriko lehiaketarekin batera jokatu izan da. Gipuzkoako lehiaketa itzal samarrean gelditzen zela eta, lehiaketa honi protagonismo handiagoa eman nahian, beste egun bat aukeratzea erabaki zuten Erlezain elkarteok. Zegama berehala prest agertu zen era honetako azoka egun bat hartzeko. Elkarlan honetatik sortu da Erlezain eguna.

Gipuzkoako IV. Ezti lehiaketa

Gipuzkoako lehiaketa jokatu aurretik, eskualdekakoa jokatu da. 7 eskualdetan banatzen dute Gipuzkoa. Eskualde bakoitzetik lehenengo hiru ezতির onenak sailkatuko dira Gipuzkoako lehiaketarako. Berrikuntza bat bada aurtengo lehiaketa honetan, Manex Aranburu Erlezain elkarteok kideak esan digunez: "orain arte ezti lehiaketa guztietan



Manex Aranburu: "Usurbilen erle eguna ospatzen da. eta Zegaman erlezain eguna ospatuko dugu. Guretzat garrantzitsua da, erlezainek euren eguna izatea, Gipuzkoako erlezaina omendu nahi da"

eztia bertan dastatu izan da eta gerora, sailkatutako eztiak analizatu egin dira. Polena, sakarosa, hezetasuna, ph, testura... Jakin ahal izan da ezti hori bertakoa dela. Polenak erakusten du hori. Euskal Herrian ez dagoen landare baten polena baldin badu, orduan badakigu ezti hori ez dela bertakoa. Beste batzuetan ikusi izan da maria bainuan berotutako eztiak, kristalizazioa lortzeko. Hortik babesteko, aurrez egingo dira eztien analisiak aurtengo eskualdeko lehiaketetan aukeratutako artean.

Lehenengo aldia da Goierri egiten dela Gipuzkoako ezti txapelketa.

Ezti gozogintza lehiaketa

Eztiz egindako gozogintza-lehiaketa-erakusketa ere egingo da Zegaman. Antolatzailerak ez dute era honetako beste lehiaketarik ezagutzen, beraz, Zegamakoa, lehenengoa izango da. Eztiz eginda-

ko edozein postrek aurkez dezake lehiaketan eta edonork har dezake parte, ez dago mugarik. Dena den, lehiaketako oinarriak ondoko koadroan dituzue.

Bi lehiaketetan parte hartuko duten ezti eta postre guztiak, dohainik banatuko dira bertaratzen diren guztientzat.

Erle durrunba

Eguna txistularien kalejirarekin hasiko da eta bigarren ekitaldia, goizeko 10,30etan hasita, erle durrunba egingo da usadio zaharrean. Manex Aranburuk adierazi digu zertan datzan erle durrunba: "galduta dagoen ohitura da eta konstantzia bat utzi nahi dugu gizartearen, erlezainak nola deitzen zuen erlekumea erakutsiz. Noizbehinka erlekumea botatzen da, horrek esan nahi du erlauntzaren %40 joan egin daitekeela. Beraz, erleak berreskuratu egin behar dira. Normalean,

Hitzaldiak

Bi hitzaldi izango dira azokaren aurretik, otsailaren 11n eta 14an.

● 'Apiterapia: erle ziztaden osasun onurak'. Otsailaren 11n, erlearen pozoina giza-kiaren osasunerako nola aprobetxatzen den adieraziko du Mariano Mairal medikuak.

● 'Gipuzkoako milalore eztiak'. Otsailaren 14an., hitzaldi honen helburua, eztiak, produktu osasuntsu eta natural bezala aldarrikatzea da. Eztiaren ezaugarriak azaldu nahi dira. Milalore eztiaren onurak adierazi nahi dira, lore ezberdinen sustantziak baititu.

lehen, soinua eginez lortzen zen. Garai batean, egur batekin golpea jotzen zen, hutsa zegoen leku batean. Orduan erleak bazekien, instintoz, bertan lekua zuela sartzeko".

Erakusketa

Erlezain elkarteak erakusketa trinkoa jarriko du Maiora plazan. 20 bat paneletan erlezaintzaren inguruko hainbat informazio bilduko da. Historian zehar erleak izan duen garrantzia eta bilakaera; eztiaren prozesua; garai bateko erlauntzak Euskal Herrian... Erlezaintzan erabiltzen diren materialak ere erakusgai jarriko dira. Erleak bizirik erakusteko asmoa ere badago, kristalezko paneletan, erlearen konportamendua gertutik ikusteko.



Zegamarrak pozik

Lehenengo aldiak sortzen duen ilusioarekin, gustura dago Juan Ignazio Galdos Zegamako alkatea, Erlezainen egun honekin. "Egun garrantzitsua da guretzat. Erlezain elkartetik planteatu zigutenean, berehala erantzun genuen baietz. Guk kultura eta tradiziozko festen inguruan antolatzen dugu urtea eta hasierako hilabete hauetan hutsune bat izaten genuen. Ilusioz beteta gaude. Gauza berri bat da eta ez dakigu zenbaterainoko inzidentzia edukiko duen, bai antolakuntza aldetik eta bai Zegamara etorriko den kopuruaren aldetik. Baina prest gaude".

Erlezaintzarekin badu loturarik Zegamak. "Nekazari-

tza eta ingurumen arloko azoka San Martinetan egiten dugu eta bertan erlezaintza arloa ere sartzeko asmotan ere bagenbiltzan. Orain gai honen inguruan azoka monografikoa egiteko aukera etorri zaigu eta aprobetxatu egin dugu".

Joxe Mari Gorrotxategi Tolosako gozogilearekin harremanetan izan dira zegamarrak hasieratik. "Berak bideratu gaitu eta berak aholkatu digu gozogintza lehiaketa antolatzea. Oinarriak berak moldatu ditu. Gipuzkoako Gozogile elkarteak ere inplikatu da".

Aurrera begira hurrengo urteetan ere azoka berezi hau egiteko asmotan dira zegamarrak.

Erlezain ugari Goierriin

Erlezain kopuru altua dago Goierriin, 100dik gora. Gipuzkoan 500 dira eta Goierriin bertan 100dik ondo gora. Datu hori hor egonda, Manex Aranburuk zera salatzen du: eztiolarik ez dagoela Goierriin. "Ezkio-Itsason ezti-ostatu bat egiteko proiektua egon zen baina ez zen bideragarria ikusi eta bertan behe-
ra gelditu zen. Eztiola, ezti museoa, ingurugiro interpretazi gunea, ostatua, erlezainak biltzeko lekua... egiteko asmoa zegoen. Orain berraztertzeke eskatu dugu proiektua Legazpi aldean turismo arloan egiten ari diren saiakera aprobetxatuz. Eztiola guztiak kostaldean daude: Irunen, Getarian eta Usurbilen. Goierriko erlezainak normalean Iruna joaten dira. Ezti material higroskopikoa da, hezetasuna berehala hartzen du eta hezetasuna hartuz gero ez da ondo kontserbatzen. Eta ez bada ondo kontserbatzen, berehala fermentatu egiten da. Hezetasun baxua mantentzea oso garrantzitsua da. Goierriko erlezainek eztiola aldarrikatzen dugu".

Eztiz eginiko postre lehiaketa

Edonork har dezake parte eztiz eginiko postre lehiaketan. Ezti osagai duen edozein postre egin daiteke, jaterakoan bere zapo-
rea nabarmendu behar da. Aurkezteko erari dagokionean, ohiko tarta eran aurkezten bada, gutxienez 6 erraziotakoa izan behar du eta postre eran aurkezten bada, hau da, plater, kopa edo katiluan, 3 unitate. Postreak otsailaren 17an bertan goizeko 11k aurretik aurkeztu behar dira pilotalekuan. Epaimahaia postregintzako profesional edota gastronomia munduan ezagunak direnek osatuko dute. Bi sari egongo dira: lehenengoarentzat, 15.000 pezeta eta txapela, eta bigarrenarentzat 10.000 pezeta. Izen ematea doakoa da. Aurkeztutako postreak antolatzaileen esku geratuko dira eta, bertan entregatutako plater, kopa, katilu edota moldeak beren jabeek itzuliko zaizkie.

Egitaraua

Otsailak 11, astelehena:

19:30ean: 'Apiterapia: erle ziztaden osasun onurak' gaiari buruzko hitzaldia, Mariano Mairal mediku eta akupuntorearen eskutik, udaletxean.

Otsailak 14, osteguna:

19:30ean: 'Gipuzkoako milalare eztiak' gaiari buruzko hitzaldia, Isabel Telleria albaitari eta erlezainaren eskutik, udaletxean.

Otsailak 17, igandea: azoka berezia:

10:00etan: Txistulariekin kalejira goizean zehar.

10:30ean: Erle durrumba: erlezainek beren akuiluekin erlekumari ohikoa den zarata aterako dute usadio zaharrean.

11:00etan: Gipuzkoako ezti lehiaketa, pilotalekuan. Gipuzkoako 7 eskualdeetako hiru ezirik onenek parte hartuko dute, milalare eta lore bakarrek modalidadean.

11:00etan: Eztiz egindako gozogintza lehiaketa-erakusketa, pilotalekuan. Nahi duenak eztiz egindako edozein postre aurkez dezake lehiaketara. Izen ematea udaletxera deituz egingo da otsailaren 15a baino lehen.

11:00etan: Joxe Maiora plzan, egunean zehar: erlezainen material erakusketa; erleak bizirik ikusteko aukera Gipuzkoako Erlezain Elkartearen txosnan; ezti, argizari, propeleo, sendabellar, produktu ekologiko eta abarren salmenta guneak; erlezaintzaren heziketari buruzko erakusketa.

13:00etan: Gipuzkoako IV. ezti lehiaketaren sari banaketa, urteko erlezainari omenaldia eta gozogintza lehiaketako sari banaketa. Hau guztia bertsolariek alaitua. Lehiaketetako ezti eta postre guztien dastatzea, dohainik.

14:45ean: Bazkari herrikoia. Menuak 18 euro balioko du. Nahi duenak Zegamako udaletxean izena eman beharko du otsailak 12 baino lehen (943801351).

Goizean zehar Gipuzkoako Erlezain Elkartek Iparlatekin batera, jogurtak eta ezti banatuko dute dohainik.

Ramona Albizuk, lazkaotar helduenak, 100 urte bete ditu



100 urte eta istorio ugari ziur Ramona Albizu Arakamak izango dituenak. Lazkaoko helduena da eta iragan urtarilaren 30ean 100 urte bete zituen. Bere familiartekoen inguratuta ospatu zuen Ramonak urtebetetzea, eta bisitan joan zitzaizkionak ere poz-pozik hartu zituen etxean. Omenaldia ere egin zitzaion, Gipuzkoako Aldundiak 100 urte betetzen dituztenekin egin ohi duen modura. Beste opari batzuekin ba-

tera Aldundiaren eskutik plaka bat jaso zuen eta Udalaren eskutik berriz, brontzeko eskultura txiki bat.

Jaiotzez arabarra da Ramona Albizu, (baina gurasoak goierritarak ditu ama zegamarra zen eta aita idiazabalarra) eta bera ere, 1940. urteaz geroztik Lazkaon bizi da. Egun txandaka ibiltzen da Ramona. Lazkaon, Ramonaren hiru semeetako bat bizi da eta semearen etxean pasatzen ditu Ramonak urteko

hainbat hilabete; urtearen gainontzekoa beste bi seme-alaben etxean igarotzen ditu Ramonak.

Eta horrelaxe ospatu zuen 100. urtebetetzea ere. Seme-alabez eta hauen bikoteez inguratuta, eta familiako zortzi bilobekin batera ospatu zuen egun handia. Orain birbiloak izan eta hauek ezagutze-ko irrikan dago Ramona.

Etiket ezin du asko irten, baina osasunez ongi dago. Oso emakume metodikoa izan omen da beti, baina harelere, eta familiartekoek diotenez inoiz ez du horrenbeste bizitzeko esfortzu berezirik egin. Zorionak Ramona Albizu, lazkaotar helduenari eta oraindik luze segi dezala.

Oihana Sarasola

Txisteak, bertsoak eta musika Maizpiden

Barre ugari egin eta ondo pasatzeko txiste kontaketa antolatu du Maizpide Euskaltegiak. Datorren otsailaren 13an, asteazkena, izango da emanaldia Maizpideko zineman arratseko 9etatik aurrera.

Baina txisteak baino bertsoak nahiago dituztenek bertso afariatz gozatzeko aukera izango dute hilaren 19an. Oraindik zehaztu gabe dago bertsolariak nortzuk izango ote diren, baina giro aparta aurrez ziurtatu daiteke. Afaria Maizpidek jangelan izango da 9etan.

Eta otsailak 20, asteazkena, berriz, musikaren txanda izango da. Maizpide euskaltegiko hainbat ikaslek musika kontzertua eskainiko dute teklatura, kitarra, bioloncelea... eta beste hainbat instrumentu joz. Kontzertua ere arratseko 9etatik aurrera izango da Maizpideko zineman.

Eta Maizpideko ikasleen ondoren, Lazkaoko San Benito ikastolako haurrek izango dute txanda. Beren trebezia erakutsiko dute hilak 21, ostegun ean. Arratsaldeko 3etatik aurrera, ikastolako haurren jaialdia ospatuko da Maizpideko zineman.

Aukera ugari zalantzarik gabe animatzen direnentzat! Maizpide euskaltegiko arduradunek zera azpimarratu nahi dute: ekintzak Maizpide euskaltegian antolatzen dira bertako ikasleek nahiz herritarrek gozatu ahal izateko, beraz lazkaotar guztioi animatu eta Maizpide euskaltegira gerturatzeko eskatzen digute.



Jose Antonio Dopazo, PSE-EEko zinegotziak bere kargua utzi du

Urtarrilaren 30ean, komunikabideen bidez ezagutu genuen Lazkaoko alderdi sozialistako zinegotziaren erabakia: arrazoi pertsonalak argudiatuz eta bizkartzainarekin ibiltzea gogorra gertatzen zaiola esanaz, Jose Antonio Dopazok bere kargua uztea erabaki zuen. Erabakia asteartean ezagutu bagenuen ere, osteguneko udal bilkuran ofizialdu zen. Felix Urkola alkateak irakurritako agirian, eskerrak emateaz gain, elkartasuna adierazi zion Dopazori eta ETaren indarkeria gogor salatu zuen. Arratsaldeko 7,30etan, Gesto por la Paz taldeak deituta, bilkura isila egin zen Udaletxe aurrean. Alderdi sozialistako ordezkari ugari bertaratu zen. Hemendik aurrera, Juan Manuel Sernak ordezkatzeko du Lazkaoko alderdi sozialistako zinegotzi karguan.

Sutea Sanblasetan

Ojarbitik gora, Olaberriarekin muga egiten duen "Koskaizti" mendiko 45 hektarea erre ditu asteburuan izandako suteak. Sua bere kasa hasi zen edo norbaitek nahita piztu zuen argitu gabe dago oraindik. Kandelari egunean, otsailak 2, iluntzeko zazpiak ondoren hasi zen sua "Koskaizti" mendian. Festen erdian, pilotalekuan, profesionalen pilota partidak jokatzen ari zirela zabaldu zen albistea eta berehala igo ziren mendira dozenaka herritar. Foru Aldundiko Mendi sailarekin eta suhiltzaileekin elkarlanean, ehundik gora idiazabaldar eta olaberriar aritu ziren goizaldera arte sua itzaltzen. Batzuk gau guztia bertan eman

zuten. Herritarren artean kezka zabaldu zen, kaletik, sua zegoena baina gertuago ikusten baitzen.

San Blas egunean, hainbat puntutan suak indarra hartu zuen berriro ere eta aspaldi ez bezala, arratsaldeko laurak aldera su kanpaiak jo beharra izan zituzten. Berriro ere herritarrek sua zegoen gunera jo zuten.

Astelehenerako sua kontrolpean zegoen arren, Mendi saileko kamioiarekin aritu ziren herritarrek kea zegoen lekuetan ura botatzen. Kronika hau idazterakoan, ez zegoen suak eragindako kalteen berri ofizialik.

Xabier Urteaga



Argazkia: Fotoetxe

Sanblasak

Suarèn ondorioz, herritar askok ezin izan dute Sanblasetan nahi bezala disfrutatu, hala ere oro har 2002. urteko jaiak ongi joan dira. Otsailaren hasieran, inork gutxi espero zuen hain eguraldi ona. Temperatura altua eta eguzkia lagun, kalean egindako ekitaldietan (krosa, danborradak, goitibeherak, txirrindulari lasterketa, dantzariak...) jende asko bildu da. Barrukoetan ere (pilota partidak, aizkolariak, txistularien alardea, pailazoak...) sobran leku gutxi edo batere ez da ikusi.

Inauteriak

Sanblasetako ajea pasatzeko asti handirik gabe datoz aurtin inauteriak. Gaur, ostirala, egingo da Idiazabalen inauterik-festa. Arratsaldeko 8etan moztzorro txuri eta beltzen arteko dantzak izango dira. Gaueko 9etan moztzorro afaria eta ondoren Txaranga ibiliko herrian barrena giroa alaituz.

Argentina

Duela bi aste iritsi zen herrira, Argentinako Idiazabalgo Fabrisio Martinato gaztea. 22 urteko idiazabaldarra (Argentinakoa) Donostian hasi da lanean. Sei hilabeterako kontratua du, aire egokitua lantzen duen enpresa batean. Argentinako krisiak bultzatuta eta bi Idiazabalen adiskidetzeko akordioa tarteko etorri da Fabrisio Idiazabala.



Argazkia: Fotoetxe

INIAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa

943 88 43 01 OLABERRIA

ARRIETA

JATETXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



Patxi Eskitxabel presoaren askatasuna eskatzeko plataforma sortu da

Abenduaren 24an aurkeztu zen jendaurrean Patxi Eskitxabel presoaren askatasuna eskatzeko herritarrek sortu duten plataforma. Zigorren hiru laurdena beterik du Patxi Eskitxabelek eta legearen arabera kalean egon behar luke. Horregatik sortu da plataforma, bere askatasuna eskatzeko. Adin eta sektore desberdinetako jendeak osatzen du plataforma.

Patxi Eskitxabel Etxeberria, 1980ko urriaren 4an atxilotua izan zen. 1995eko urriaren 14an bete zuen zigorraren hiru laurdena, "beraz,

duela 6 urte kalean egon behar luke Espainiar legegian agertzen den 90. artikulua dioenaren arabera. Izan ere, honela dio artikulua honek, baldintzapeko askatasuna zein kasutan aplikatzen den zehaztuz: 1. preso 3. graduaren aurkitzea; 2. zigorraren 3/4ak beteta izatea; 3. espetxe horretako zaintzako epaileak txosten baten bidez, presoaren jarrera ona eta birgizarteratzeko prest dagoela ziurtatzea", diote plataformako kideek.

Patxi Eskitxabelek preso daramatzan 21 urte hauetan

Elkartasunezko talo jan festa

Ugaro Guraso Elkartek Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatutako talo jan festa egin zen otsailaren 3an. Taloak 2 eurotan saldu ziren eta sagardoa nahiz ardoa, berriz, doan izan zen. Bildutako dirua hirugarren mundura edo premian dagoen jendeari bidaliko zaio, urte amaieran egiten den gaztaina festan bezalaxe. Guraso Elkartek urtean bitan egiten du diru bilketa hau.

Zinea

Otsailak 14, 'Torrente 2. Mision en Marbella', Herri Zineman, 20:30ean.

Otsailak 21, '15 minutos', Herri Zineman, 20:30ean.

Espainiar estatuko kartzela ugaritan izan da: Carabanchel, Soria, Alcalá, Herrera de la Mancha, Sevilla II, Salto de Negro, Zamora, Burgos, Melilla, Córdoba, Martutene, Valdemoro, Navalcarnero eta Villabona. Gaur egun Astuariasiko Villabonan dago, Legorretatik 450 kilometroa.

Plataformako kideek aurkezpenean adierazi zuten, "plataforma honi abiada ematen diogu eta Patxi kalean ikusi artean, egin bide ditugun ekintzetan parte hartzea gonbidapena luzatzen diogu bai legorretar orori, baita ere Pakoren giza eskubideak defendatzearen alde dagoen edonori".



Gabon eskean

Abenduaren 24an bertan, arratsalde, euskal preso eta errefuxiatuen alde gabon kantuan aritu ziren zenbait herritar, baserri baserri eta kalez kale. Kantatzen antolatzaileek uste baino jende gutxiago atera bazen, giro aparta izan omen zuten. 153.600 pezeta bildu zituzten.

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

*Goiko argazkian
egungo egoitza.*

*Behekoan Santa Ana
ikastetxe barruko gela
bat nola dagoen.*



AEK-k egoitza berria

Eguberrietan irakasleek opor-
rak izaten dituztela baina ez
zen honela izan AEK euskal-
tegikoentzat. Inoxente eguna-
rekin batera, Egutera bideko
bizilagun baten abisuaren on-
dorioz udaltzainak Santa Ana
ikastetxera sartu eta dena
urez gainezka topatu zuten.
Azken pisuko komuneko ur-
hodi bat izotzaren ondorioz
lehertu eta goitik behera dena
blai eginda geratu zen. Kon-
turtzerako pisuz pisu ura pa-
satzen joan eta AEK-k behe-
ko solairuan dituen geletarai-
no iritsi zen ura. Bertako ma-
terial guztia busti-busti egina
geratu zen, ordenagailu, foto-
kopiagailu eta abarrak kalte-
tuaz.

Gauzak honela, argi-inda-
rra eta ura moztu eta sabaieta-
ko igeltsua erortzen hasi zen
hurrengo egunetan. Honela
ez zegoen klaserik ematerik.
Urtarrilaren 7an, ordea, esko-
lak hasi behar eta lokala be-
har. Udalarekin harremanetan
jarri eta herrian lokal eskasia
dela eta zeuden aukera murriz-
tzak kontuan hartuta, azkenik
Santa Maria Kaleko Dorrea
etxeko bigarren pisuko lokala
utzi zien Udalak AEK-koei.

Hitzarmena sinatu bitartean
Barrenako geletan eman zi-
tuzten eskolak euskara ira-
kasleek. Hemendik aurrera,
beraz, beste egoitza bat izan-
go du AEK-k, Posta Etxea eta
Goierritarrako bulego gaine-
an hain zuzen.

Era berean, Goiztiri AEK-
koek otsaileko matrikulazio
kanpaina martxan jarri dutela
adierazi nahi dute. Izena
emateko epea otsailaren
15era arte luzatuko da eta
ohiko eskaintzaz gain EGA

Mus txapelketa azkarra

900 euro eta txapela irabazteko aukera ezin hobe-
a duzu dato-
rren otsailaren 16an, larunbata. Argi Berri Elkartek 25. mus
txapelketa azkarra antolatu du eta ohi bezala sari erakargarriak
ipini dituzte. Bikote irabazleak 900 euro eta txapelak eskuratu-
ko ditu. 2. bikotearentzat 450 euro izango dira, hirugarrenaren-
tzat 240 euro, laugarrenarentzat 120. Lehen 8 bikoteentzat
izango dira sariak, baita herriko lehenarentzat eta Argi Berri el-
karteko lehenarentzat ere.

Mus partidak lau erregera jokatu-
ko dira 6 hamarrekoko 3
ustelera. Izena otsailaren 16ko arratsaldeko 4,15ak baino lehen
eman beharko da Bustuntza auzoan dagoen Argi Berri Elkar-
tean bertan eta bikote bakoitzak 25 euro ordaindu beharko ditu.

Futbol txapelketa

Otsailean sartzearekin batera koadrila arteko futbol txapelketa-
ri hasiera emateko garaia iritsi da. Lehen bilerak egin ondoren
XXIII. txapelketa honen antolakuntza Irrintzi eta Usunbilla tal-
deen esku geratu da. Neurketak otsailaren 16an hasi eta uztai-
laren 7a bitartean jokatu-
ko dira, ohi bezala larunbat arratsalde
eta igande goizetan anexo futbol zelaian. 12 taldek eman dute
izena. Jarraian izenak: Irrintzi, Vicuña Sport, Urbitarte sagar-
dotezia, Badago, Wiskas, Bustunmira, Flying, Reaggy Boy's,
Tximista Sagardotezia. E.R.Matxain Ileapaindegia, Ferrocarril
Oeste eta Usunbilla.

Atletismo emaitzak

Modu onean joan zaio urtarrila Txindoki Atletismo Taldeari.
Aurrekoan aipatu genizuen Jose Javier Cuadrado "Karratu"k
Gipuzkoako Kros Txapelketan 3. postua lortu zuela. Bada
oraingoan Idiazabalgo proban postu bera errepikatu zuen. Era
berean, estalitako aretoan Donostian jokatu-
tako Gipuzkoako
txapelketan Adur Ugartemendia 2. izan zen salto hirukoitzean
eta Eneko Barandiaran 2. pertiga eta altuera jauzietan.

eta alfabetatze taldeak ere ba-
dituzte. EGA azterketarako
deialdi itxirako aukera ere
izango da. Izena emateko
nahikoa izango da Santa Ma-

ria Kalea 4-2-eraz joatea
edota 943-889174 telefono
zenbakira deitzea.

Aitor Calvillo

'Banbulo' antzerki saioa

Antzerki garaiaren barruan Txalo taldearen
"Banbulo" antzezlanari dagokio oraingoan
txanda. Herri Antzokian, gaur bertan, otsai-
laren 8an iluntzeko 22,15etan. 9 euro utzi be-
harko dira sarreran eta Bernardo Atxaga
idazleak sortutako Banbulo txakurraren
menturak ikus-entzuteko aukera izango da.

Kontaketa lehiaketa

18 urtetik gora badituzu eta zer kontatua ba-
daukazu Kimetz Emakume Elkartek antola-
tutako VIII. Kontaketa Lehiaketan parte har-
dezakezu. Lanak gai librekoak izango dira,
gutxienez 5 orri eta gehienez 10 eta apirila-
ren 15a baino lehen Barrenara bidali beharko
dira. Lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz ida-
tziak izan daitezke.

Galdaragileak

Ijitoen bisita jaso genuen joaneko otsailaren
2an. Inauteriak badatozela iragartzea zuten
helburu galdaragileek eta herriari ohiko ibil-
bideari bira eginez aurretik entsegatutako
kantutak eskaini zituzten. Zartaginekin ater-
tako zarata ere ez zen falta izan. Garagartza
Plazan eman zioten amaiera ekitaldiari,
nahiz eta gero herriko kaleetan barna ijito
mordoa ikus zitekeen oraindik ere.

Enma Garcia Tele5-ra

ETB2ko "Esta es mi gente" programa aur-
kezten aritu da orain arte Enma Garcia ordi-
ziarra. Programa utzi, Tele 5 kate pribatuko
eskaintza onartu eta "A tu lado" talk show-
ko aurkezle gisa arituko da otsailaren 11tik
aurrera.

GOIERRITARRA aldizkariak aurrera egiteko zure laguntza behar du

1989ko azaroan sortu zen GOIERRITARRA aldizkaria, **euskararen normalizazioa helburu izanik**, goierriarrok, gertu-gertuko albisteak irakurri, euskaraz irakurtzeko ohitura har zezaten. **8.300 harpide** ditu GOIERRITARRA aldizkariak, era honetako aldizkarietan kopururik handiena. **Goierri eskualdean erreferentzia gune garrantzitsua** bilakatu da GOIERRITARRA aldizkaria, goierriarrok elkarren berri jakinez eta eskualdeari izaera handiagoa emanez.

Urte hauetan guztietan, posible izan delako eta nahia ere horrela izan delako, **dohainik banatu izan da GOIERRITARRA aldizkaria**, ahalik eta irakurle gehienengana iris-

teagatik. Urte berriak ekarri digun albisteak, ordea, GOIERRITARRA aldizkaria egiten dugunon gogoz kontra, posta gastuak kobratzera behartuak izan gara, GOIERRITARRA aldizkariak eta euskarak aurrera egin dezan. Guztion borondatea behar-beharrezkoa da proiektuak jarraitzeko.

Posta gastua bikoiztu egin da

Arrazoi horrexek eraman du GOIERRITARRA aldizkariaren bizi iraupena kili-kolo jartzera. Urtarrilean albiste horrekin topatu gara eta

horrek zera esan nahi du GOIERRITARRA aldizkariarentzat: **2001. urtean posta zerbitzuan 3.300.000 pezeta gastatu bazituen GOIERRITARRA aldizkariak, aurtén, 6.600.000 gastatu beharko dituela.**

Ezin aurre egin

11 urteotan, dohainik banatu izan da GOIERRITARRA aldizkaria. Orain arte posible izan du harpideei ezer eskatu gabe, hamabostero 8.300 etxeetara aldizkaria dohainik banatzea. Ezusteko igoera handi honekin, ordea, gauzak asko aldatu dira eta **ezinezkoa zaigu orain arte bezala, GOIERRITARRA aldizkaria dohainik banatzea.**

Martxoaren 27rako txartel hau beteta bidaltzen ez duenak, ez du gehiago GOIERRITARRA jasoko

Goierritarra jasotzen jarraitzeko
Goierritik kanpo bizi direnek
derrigorrean bete beharrekoa

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Herrialdea:

Telefonia: Adina: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz ☐

Goierritarra etxean jaso nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
Goierritarra Goierriaz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Martxoaren 27rako txartel hau beteta bidaltzen ez duenak, ez du gehiago GOIERRITARRA jasoko

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro
Europaz kanpo: urtean 36 euro

Martxoaren 27rako txartel hau beteta bidaltzen ez duenak, ez du gehiago GOIERRITARRA jasoko

Dirulaguntza publikoak, eskas

2002. urtean GOIERRITARRA aldizkariak 26.000.000 pezetako aurrekontua, 156.263,15 eurokoa, izango du. Erakunde publikoek 2001. urtean GOIERRITARRA aldizkariari eman dien dirulaguntza, 8.158.777 pezetakoa da (49.035,24 euro); horietatik 4.115.850 pezeta (24736,76 euro) Goierriko 19 udalek eman zuten, urtean, biztanleko 125 edo 100 pezeta emanez. Udalen diru kopuru honekin, ikusten duzue-nez, posta gastua bera ordaintzeko ere ez dauka Goierriko aldizkariak. Publizitatetik eta erakunde pribatuetatik 13.279.683 pezeta (79812,50 euro) jaso genuen 2001. urtean. Guztira, gutxi gorabehera, 22.000.000 pezeta.

2002. urtean, iazko diru sarrera beretsuekin, 4 milioi pezetako defizita izango luke GOIERRITARRA eta horri nola edo hala aurre egin beharra dago.

Harpideentzako baldintza eta neurri berriak

Goierritik kanpoko harpideak

● **Goierritik kanpoko harpide guztiei**, posta gastuak kobratuko zaizkie. Hau da, Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraingoak ez diren harpide guztiei.

Hego Euskal Herria eta Espainiakoei: 12 euro (1.996 pezeta), urtean.

Ipar Euskal Herria eta Europakoei: 24 euro (3.993 pezeta), urtean.

Europaz kanpokoei: 36 euro (5.989 pezeta), urtean.

● **Martxoaren 27a baino lehen**, ondoko orriko txartela beteta bidaltzen ez duen Goierriz kanpoko harpideari, ez zaio gehiago GOIERRITARRA aldizkaririk bidaliko.

Goierriko harpideak

● **Goierriko harpideei dagokienez**, GOIERRITARRA aldizkaria diruz lagunduko duten laguntzaileak aurkitzen saiatuko da. 12 euro urtean; hilean euro 1. Neurri hau, borondatezkoa da eta laguntzaile egiten ez direnei ere aldizkaria bidaliko zaie. Baina, irakurle guztioi hausnarketa egitea eskatzen dizue GOIERRITARRA aldizkariak, bere etorkizuna kolokan egon baitaiteke guztion artean ahalegintxo hau egiten ez badugu. Horrela, beheko txartela bete eta bidaltzea eskatzen zaie harpidedunei.

● **Otsailaren erditik aurrera**, GOIERRITARRA aldizkaritik telefono deia jasoko duzue Goierriko irakurleok, zuen laguntza emango duzuen ala ez jakin eta hartu beharreko datuak hartzeko.



hilean **euro 1**
Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz ☐

Goierritarra etxean jaso nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru) kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik



Inauteriak

Gaur ostirala, otsailak 8, Inauteriak ospatuko dira Zegaman. Aitxuri Herri Eskola-tik arratsaldeko 2,30etan egingo dute irteera hurrek mozturorik eta herriari buelta eman ondoren, Guraso Elkarateak eskainitako txokolate jatea izango da udal arkupeetan bertaratutako haur eta helduentzat.

Bestalde esan, azken urteotan Kultur Etxetik Inauterietako ostiralean zenbait ekinga bultzatu badira ere, (dantza lehiaketa, txiste lehiaketa) aurtengoan bertan behera uztea erabaki duela, jarritako ekintzatan partehartze urria eman delako eta azken finean ordu erdi batez aforitxo bat burutu eta tabernetarako bidea hartzen zutelako afaltzera joandakoek.

Lourdesko Ama Birjinaren eguna

Lurdesko Ama Birjinaren Eguna ospatzeko, Jubilatutako Elkartean, aurtengo arratsaldeko 17:00etan Meza izango da bertaratuentzat eta ondoren txokolate jatea.

Erlezain eguna

Datorren otsailaren 17an Erlezain Eguna ospatuko da Zegaman, eta egun horren bueltan hainbat hitzaldi eta txapelketa burutuko dira. Otsailaren 11n, astelehena, hitzaldia izango dugu Zegamako Udaletxean. Bertan 'Apiterapia eta erle ziztaden osasun onurak' gaia landuko da, horretarako Mariano Maioral bertan izango dugu. Esan hitzaldi hau hasera batean otsailaren 14rako aurreikusita bazegoen ere, bi hitzaldiak datatrukatu behar izan dira, ustekabeko arrazoi batzuen medio. Beraz, otsailaren 14an emango da "Gipuzkoako Mialore Eztiak" gaiari buruzko hitzaldia. Bi hitzaldiak, iluntzeko 7:30etan izango dira Zegamako Udaletxean.

Otsailaren 17an, berriaz, Gipuzkoako Ezti Txapelketa eta Ertiz egindako Gozogintza Txapelketa burutuko dira Zegaman, feria berezi baten barnean. (Informazio zehatza 8-9. orrialdeetan).

Otsailaren 17an, Erlezain Egunaren barnean, bazkari



Aitxuri Herri Eskola Carrefourreko Olentzero lehiaketan saritua

Alai eta pozik agertu ziren haurrak Carrefourrekoak, Olentzeroekin batera, saria eta kopa ematera etorri zirenean. Izan ere, orain dela bi urte bezala Aitxuri herri eskola izan da 8 eta 11 urte bitarteko kategorian irabazle.

eder bat burutuko da eta bertan parte hartu nahi duenak Udaletxera deitu behar du bere izena eman dezan, otsailak 12 baino lehen. Kostua: 18 euro. Esan, aukera polita izango dutela erlezaintzari buruz zertxobait ikasi nahi dutenek bertan parte hartuz gai honi buruz beste ikuspegi bat jasotzeko. Izenematea: 943 801115 telefonoan (Eduene).

Bideo emanaldia

Otsailaren 10ean, "El Profesor Chiflado" pelikula botako da Kultur Etxean, Guraso Elkartearen eskutik.

Ikastaroak

"Erretzeari uzteko ikastaroa" eta "Yoga Ikastaroa" martxan jarriko dira berehala eta izenematea, Udaletxean egin behar da eta epeak otsailaren 11n Yogarena eta otsailaren 18an Erretzeari uztearena bukatuko dira.

Eduene Albizu



Sukaldaritza ikastaroa

Kultur elkarateak sukaldaritza ikastaroa antolatu du, Otsailaren 9tik Martxoaren 2ra, larunbat jarraian, goizeko 11etatik 13etara izango da.

Ikastaro hau Segurako Aiert Izagirre sukaldariak emango du, Liztormendi elkartean.

Zorionak Jon

Larraondoko, Jon Muñoa, Beasaingo Udalak antolatutako XII. Eskolarteko literatura sariketan, A taldean eta olerki sailean "Neure bila" izeneko lanagatik saritua izan da. Ez da lehen aldian literatura sariren bat jasotzen duena eta ez dala azkena izan, zorionak eta jarraitu horrela.

Tute txapelketa

Urtarrilaren 26an Liztormendi elkartean jokatu zen Tute txapelketa, hoguei bikotek hartu zuten parte, eta lehia gogor baten ondoren Zegamako Sebas eta Markos izan ziren garaile, eta bigarren Joxe Ramon eta Joxe Urbizu, hauek ere zegamarrak.

Mari Flor Mendizabal

Otsoak dantza-taldea: egi bihurtu den egitasmoa

Badira jada urte batzuk Otsoa dantza-taldea sortu zenetik. Egun 31 dantzarik osatzen dute taldea, 4 urtetik hasi eta 15era bitarte. Egun, Haizea Moreno beasaindarra arduratzen da dantza taldeaz, baina "nire aurretik Doltza izan zen irakasle eta, haren aurretik Eider. Hasierako urteetan Arantxa de la Fuente aritu zela ere entzuna dut". 31 dantzariok 4 taldetan daude banatuta. "Txikienek 4-5 urte dituzte eta 7 haur daude talde horretan. Talde honi Izarne Imaz eta Maider Arruabarrenak erakusten die". Izarne eta Maider taldeko partaide zaharrenetarikoa ditugu eta orain irakasletza lanetan hasiak dira. Haizeak dioen eran, "hori bultzatzen saiatzen gara, irakasleak herritarrak izan daitezen" eta, dirudienez, oso gustura ari dira lan horretan Maider eta Izarne. Talde honek astelehen eta ostegunetan entsaiatzen du, 4,15etatik 5,15etara.

Gainontzeko taldeez Haizea bera arduratzen da. 7 urtekoen taldean 5 mutil eta 5 neska ditu bere ardurapean. Hauek astelehen eta asteazkenetan, 45 minutuz jarduten dute, 5,15etatik 6etara artean. "Legeak dioenez, adin hauek hiru ordu laurdeneko saioak egin behar dira. Nahiz eta gazteenekin ordubetekoak egiten ditugun, berez, eta legeak hala dioelako 45 minutuko saioak egin beharko genituzke. Beno, egia esan, txikienek jolas ere egiten dute,

baina ez nuke jendeak pentsa dezan ezin dugulako egiten ditugula saio motzagoak talde honekin, legeak hala agintzen duelako baino".

Astelehen eta asteazkenetan izaten dute saioa 9 urtekoek ere. Talde hau osatzen duten 5 dantzarietarik 2 dira mutilak. Hirugarren talde honek bukatutakoan, hasten da zaharrenen saioa. 12-15 urte bitarteko taldeko partaide guztiak neskak dira. Izan ere, hau orokorrean ematen den egoera omen da, "ez da Ataunen bakarrik gertatzen, gainerako lekuetan ere mutilen

Irati Arratibel Zeberio eta Monika Arratibel Goñi XII: Beasain Idazlan Lehiaketan sarituak

Irati Arratibel eta Monika Arratibelen idazlanak sarituak izan ziren XII. Beasain idazlehiaketan joan den urtarilaren 18an, Beasaingo Udaletxean elkartu zen epaimahaiak, A eta D mailetan. "Hilabeteteroko bidaia" izeneko idazlanari esker, A mailan, 1984 eta 1985. urteen artean jaiotako eskualdeko ikasleen artean, oroigarria eta 90 eurotako 3. saria eskuratu zuen Iratik.

Era berean eta, D mailan, hau da, 1988-89 urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean, 30 eurotako sari berezia eman zioten "Sorgin-pertza saldaz beteta" izenburupean, Monika Arratibelek aurkeztu idazlanari.

kopuruak neskenak baino askozaz ere txikiagoak dira, eta batik bat adinean aurrera doazen eran kopuruok txikitzen doaz". "Dena den- gaineratzen du Haizeak- hemengo mutilek oso jarrera ona dute. Jeneralean neskak baino zailagoak, mugituagoak izaten dira, baina hemen oso jarre-

ra ona dute".

Urtean zehar ekitaldi desberdinetan ere parte hartzen dute, "herriko hiru auzoetako festetan dantza egiten dugu eta, baita kurtso amaierako Otso-Festako jaialdian ere. Horrezaz gain, Dantzari-Txikiene egunetara ere joaten gara". Bukatzeko, oso gustura dagoela komentatu zигun Haizeak Ataunen lanean eta, hori ere aipagarria da dudarik gabe.

labur-labur

● **Yana Curi argazki erakusketa** otsailaren 18tik 24ra, Udaletxeko ganbaran eta, bulego orduetan, ikusteko aukera izango da. Erakusketari izen ematen dioten hitzek "urre beltza" adierazten dute, horixe baitu gaitzat erakusketak. Ekua-dorreko Amazoniako herrietan petrolio ustiaketa dela eta jasaten dituzten ondorioen lekukotza eman nahi zaigu argazkion bidez. Medicus Mundi Gipuzkoak egindako ikerketaren ondorioa da ikusgai dugun erakusketa hau.

● Aurreko urteetan bezala, aurtengoan ere **ikastaroak egiteko aukera zabala** iritsi zaigu Udaletxetik. Joan den urtarilaren 19a zen izen-emateko azken eguna eta jada abian dira horietarik hiru: Jabier Arrietak eskaintzen duen "Taila egurrean"; "Sendabelarrak", Zorion Insaustiren eskutik eta Haizea Morenok eskaintzen duen "Arin-Arina eta "Fandangoa" dantza ikastaroak. Guztira 30en bat lagunek dihardute horietan. Bestalde, esan behar da, eskaintzen ziren gaineratiko 5 ikastaroetarako, 8 baitziren guztira, gutxiengo jende kopururik ez dela bildu eta horregatik ezin izan direla aurrera eramane.

● **Hiru heriotzen berri** izan dugu azken asteotan herrian. Ugaldeko Tomas Dorronsoro, Auzmendiko J.M. Urdangarin eta Bidarteko Josefa Antonia Urdangarin. Doluminak hiru sendiei.

Datozen pelikulak

Datozen asteetarako Herri Antzokian iragarrita gustu guztientzako moduko pelikulak ditugu, hala nola:

Serendipity (90 min.). John Cusack eta Kate Beckinsale ditu protagonista komedia erromantika.

Amor ciego. (114 min.). Gwyneth Paltrow ezaguna lodi-lodi datorkigu Farrelly anaiei komedia honetan.

Bandits (123 min.). Akzio komedia honetan protagonista ditugu Bruce Willis eta Billy Bob Thornton ezagunak.

A mi madre le gustan las mujeres (96 min.). Komedia espainiarra.

Agurtzane Bikuña

Beasaingo erlijio arloko ondarearearen katalogoa egin du Josetxo Zufiaurrek

Josetxo Zufiaurre etnografoak egin duen 'Beasaingo Arte eta fede muina' liburua aurkeztu egin zen otsailaren 4an. 'Beasain Esku Eskuan' bildumaren 4. zenbakia da. Liburu erabilgarria da. Beasaingo xehetasun desberdinak gehixeago ezagutu eta zabaltzeko balioko duena. Beasainen dagoen erlijio-arloko ondarearen katalogoa edo inbentarioa koloretako

argazkien bidez erakusten zaigu 200 orrialde ingurutan. Elizen eraikuntza, barruko erretaula, irudi, margo eta abarrei dagokien inbentarioa da.

Ez da hala ere arteari buruzko azterlan bat, ezta historiari buruzkoa ere, nahiz eta eliza edo eraikuntza bakoitzaren atala hasten denean berari dagokion xehetasun batzuk jarri.



Beasaingo kasuan, gehien-
go santuen eredutza, alde
handiarekin, gizonezkoena
izan dela adierazten zaigu.

Lau motatako fede zerbitzu leku sakratuak aurkeztu dira liburu honetan.

● Parroki Elkarte direnak: Andre Mariaren Zeruratzea eta Loinazko San Martin.

● Auzotako Parrokiak: Arriaran, Astigarreta, Garin eta Matxinbenta.

● Kapera, baseliza eta ermi-

tak: Santo Kristo (Ezkiaga), Loinazko Andre Maria, Belengo Andre Maria, San Andres, Arangoitiko Egoitza.

● Aterpe gabea, Dolareako Gurutzea eta Loinazko San Martinen gizairudia.

XX. mende bukaera zertan zen, guk hobeto ulertu eta ondorengo belaunaldiak jakin dezaten izan da Josetxo Zufiaurrearen asmoa.

Nekane Altuna

XII. idazlehiaketako sariak banatu dira

Udaleko Euskara-batzordeak antolatutako XII. Beasain Idazlan lehiaketaren sariematea otsailaren 3an egin zen Udaletxeko Batzar Areatan. 146 idazlan aurkeztu ziren eta horietako 40 saritu dituzte maila desberdinetan.

● **A mailan, 1984-1985an**
jaiok: Olerkian: 1. saria, Jon Muñoa Errasti. 2. saria, Irati Goikoetxea Asurabarrena. Lehen bi aipamenak Irati Goikoetxea eta Ane Perez de Nanclaresentzat izan dira. 3. eta 4. aipamenak ez ematea erabaki du epaimahaiak.
Hitz lauz: 1. saria, Irati Goikoetxea, 2. saria, Izaskun Esnaola eta 3. saria Irati Arratibel. Beste lau sari; Maite Etxeberria, Miren Gallastegi, Maddi Garcia eta Ane Albisuri.

● **B mailan, 1986-1987an**

jaiok: 1. saria, Maitane Larrañaga, 2. saria, Ibon Iparagirre, 3. saria, Maite Leturia. Beste bost sari: Maitane Garmendia, Unai Cuadrado, Koldo Gutierrez, Anaiz Goia eta Manex Berzosarentzat.

● **D mailan, 1987-1988an**
jaiok: 1. saria, Jokin Gartzia, 2. saria, Irati Badiola, 3. saria, Maitane Urkiola eta Jon Larrañaga. Beste hiru saria; Garazi Auzmendi, Monika Arratibel eta Jon Artola-
rentzat.

● **E mailan, 1990-1991an**
jaiok: 1. saria, Aritz Aranburu, 2. saria, Naiara Ugarte-
mendia, 3. saria, Irati Aldaz. Beste lau sari: Ainhoa Esnaola, Gorka Arruabarrena, Naia Duarte eta Marta Blance-
corentzat.

● **F mailan, 1992-1993an**

jaiok: 1. saria, Xabier meabe, 2. saria, Oihane Oregi, 3. saria, Egoitz Lasa. Beste lau sari: Kepa Aiala, Garazi Eguren, Leire Goia eta Leire Albarrantzat.

Mendiko argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkartek, Udalararen babesarekin, III. Mendiko Argazki Lehiaketa Igartza Saria jarri dute martxan. Lehiaketa honetan, lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte eta gaia mendia izango da. Argazkiak gehienez ere 30X40 zm.ko kartoiez sendotuak aurkeztu behar dira. Teknika eta aurkezteko moduari dagokionez askatasun osoa dago. Argazkiak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira bi elkartek hauetakoren batean.

Odol ateraldien balantzea

Odol emaileen ordezkariak jakinarazi digunez, 2001 urtean, 1004 odol ateratze egin ziren. 17 saio egin ziren eta batz besteko emaitza ona dela adierazi dute: saio bakoitzeko 59 ateratze inguru. Martxoa eta iraila dira hilabete onenak odol ateratze kopuruari dagokionean. Batzbestek 143 pertsonak eman baitute odola. Apirila da berriz, jendea odola ematera gutxien hurbiltzen den hilabetea. 46 odol ateratze egin ziren hain zuzen. Emaile gehienek urtean bi aldiz ematen dute odola, 303 emailek. Urtean 3 edo 4 aldiz ematen duten emaileak berriz 48 dira.

Hurrengo odol ateratzea otsailaren 12an egingo da Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera.

Bide on taldearen eskutik, Ertoetxen Bideo emanaldia ostiralero

Bideo on taldearen eskutik, ekainera bitartean, ostiralero, gaueko 9,30etan, bideoak ikusteko aukera izango da Ertoetxen, euro len truke.

Urtarrilean jarri zuten ekimena martxan Dani Etxeberria, Unai Agirre, Mikel Aranburu eta Eneko Argai-zek osatzen duen Bide on taldeak. Herria piztu nahi dute eta Ertoetxeko lokala egokitu dute ekimen honetarako, adin konkretu bateko jendea Gaztetxera ez zelakoan hurbilduko.

Hilero gai ezberdina jorratuko dute bideoen bidez. Otsailean esaterako, Zinema Soziala hartu dute gaitzat. Martxoan, emakumea izango da gai orokorra. 'Poderosa Afrodita', 'Rosseta', 'El Piano' eta 'Flores de otro mundo' filmak daude aurreikusita.

Orain arteko esperientziaren arabera, jendea ez da gehiegi mugitu antolatzaileen esanetan. "Herri honetan jendea mugitzea oso zaila da. Lehenengo bi emanaldietan jende dezente izan zen, 20 bat lagun eta besteetan askoz ere gutxiago", dio Eneko Argai-zek.

Helduentzako bideoak izango dira. Donostian bideoak erosi eta gero herritarrek alokatzeko aukera ere izango dute liburutegian.

Ikusleen artean galdeketak egiteko asmoa daukate Bide on taldekoek, iritziak eta gustuak jaso eta aurrera begira bideo zerrenda zehazteko.

Gazte Asanblada eta Udalak dira ekimen honen laguntzaileak.

Gainerako bideoen berri emanez joango gara alero.

Otsaileko egitaraua: 'Zinema soziala'

Otsailaren 1ean, 'La estrategia del caracol' bideoa eskaini zen, Sergio Cabrera zuzendariarena. Gainerako hiruak hauek dira:

● **Otsailak 8: 'El odio'.** Mathieu Kassovitz zuzendariarena. "Poliziaren atxiloteta batean zauritua izan ondoren, Abdel ospitaleko gelan dago hiltzerian. Pariseko kale estuetan honen hiru lagunek, Vinz, Said eta Hubert, pistola bat aurkitu eta, laguna gogoan, indarkeria eta gorrotoaz arituko dira mendekua eske. Filmeko erritmo bizkor eta bortitzak istorioari sinesgarritasuna eta gaztetasuna emango dio".

● **Otsailak 15: 'Ley 627'.** Bertrand Tavernier zuzendariarena. "627 Legeak droga trafikatzaleei aplikatzen zaien legea da. Lucien Marguet, 13 urtez polizia lanetan ibili ondoren, oraindik ere, kaleko legeak erakutsi dionaren arabera aritzen da. Tavernier handiak, ogibide honen gorabeherak eta egoera zakarrak, errealismo zorrotz baten ikuspuntutik begiratzeko aukera emango digu".


● **Otsailak 22: 'Mi nombre es Joe'.** Ken Loach zuzendariarena. "Joe langabetu "bizidun" bat da. Urte askotako alkoholaren menpea gainditu eta Glasgowekeko futbol ekipo txarra entretenatzen ari da. Bikote lagun bati laguntzen ari zaien bitartean. Sarah ezagutu eta maitasuna aurkitu du. Bizitza hain gogorra den lekuetan, ordea, amodioa ez da nahikoa izanzen. Ken Loach zinemagile konprometituentzat zinema eta gizarte-borrokak elkarrekin doaz, ezker eskutik eta galtzaileen eskubideen alde".

Otsailaren 8tik aurrera Herriko taberna berriz irekita

Herritarrek, atzo, otsailaren 7an inauguratu zuten berriz ere herriko taberna. Gaurtik aurrera, otsailaren 8tik aurrera, goierritar guztientzat irekita egongo da, denboraldi batez itxita egon ondoren.

Eguneko menuak eta karta zerbitzua eskainiko ditu.

Euskal Herrian ezaguna den pertsona batek hartu du tabernaren ardura: Golde Apple Quarteteko abeslaria izan den Kruz Mari Larrañagak.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Erabilera anitzetarako lokala

Udaleko haur, gazte eta kirol dinamizatzailerak bultzaturik, kultur etxeko bideo gelan sarrerako atearen ezkerretara geratzen den gunea egokituko da, 12tik 16 urte bitarteko gazteek euren aktibitateetarako eta herriko kirol talde ezberdinek euren etarako erabili ahal izateko.

XVII. Karta txapelketak

Atsedeen jubilatutako elkarteak, brixka, puntu, tute eta txapelketak antolatu ditu jubilatuentzat. Izen ematea otsailaren 14 arte dago zabalik. Partidak egun horretatik aurrera jokatu dira asteleheneetatik ostiraletara iluntzetan. Finalak martxoan izango dira.

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Errejonak: Segura 1-1 Mondragon. **Jubenilak:** Segura 2-0 Orioko. **Kadeteak:** Eibartarra 1-3 Aizkorri. **Infantilak:** Hernani 1-3 Aizkorri.

Asteburu honetan ez dago partidurik etxean.

Joseba Telleria

Herri Eskolaren IX. Kultur astea

Laiotz Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek antolatuta IX. Kultur astea burutuko da otsailaren 12tik 17ra. Eskola barrurako nahiz herriari begirako ekitaldiak antolatu dituzte.

Asteartea 12:

Goizez: 'Mendiko autobusa'ri buruzko ikastaroa 6. mailakoentzat.

Arratsalde: Mozorro festa. Ikasle eta irakasleak kaldere-ro mozorroturik parketik aterako dira, kalejira egin eta plaza ekitaldiarekin amaitzeko. Trikitilariak izango dituzte lagun. Ondoren, txokolate jana izango da guztientzat.

Asteazkena 13:

Goizez: 'Mendiko autobusa'ri buruzko ikastaroa 5. mailakoentzat.

Piano emanaldia, Haur Hezkuntzakoentzat eta lehenengo ziklokoentzat goiko esko-

lan.

Arratsalde: Antzerkirako entsaio orokorra.

Osteguna 14:

14:45ean: Antzerki emanaldia. Ikasleek gurasoei, barne-tegikoei eta Zeraingo ikasleei eskainia. Goiko eskolako areto nagusian. Ondoren, Tobera Musika Eskolakoek eskainitako musika emanaldia.

19:00etan: Ikus-entzunezko emanaldia herritarrentzat. 'Pekindik Gipuzkoara bizikletaz', Carlos Mañeruk egindako bidaia. Kultur Etxean.

Ostirala 15:

Goizez: Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklokoentzat ingurugiroa lantzeko aktibitateak (zuhaitz landaketak...).

2tik 7 urte bitartekoentzat, ama talde batek antolatu eta eskainitako txotxongilo emanaldia. Beheko eskolan.

Arratsalde: 14:45ean:

Musika festa. Ikasleen kantu eta bertso emanaldia, gurasoei, Zeraingo eta Zegamako ikasleei eta barne-tegikoei eskainia. Goiko eskolako areto nagusian.

17:00etatik aurrera 'Azpilla' dantza taldearen emanaldia plazan. Ondoren, buruhandi eta erraldoiak.

Zapartua 16:

Goizez, eskolako ikasleen arteko herri kirolak. Plazan, 11:00etatik aurrera.

Arratsalde, Pailazoen emanaldia. Poxpolo eta Mokolo pailazo tolosarrak. Plazan, 16:30ean.

Gauaz, 'Donosti Ereski Abesbatza'ren emanaldia. Komentuan, 22:00etan.

Jaia 17:

Goizez, 'Herriko mugak eza-gutuz' mendi ibilaldia. Eskolakoak zein herritarrentzat. Ondoren hamaiketako plazan.

Labur-labur

● **Elorri Elkarteko Batzarra.** Otsailaren 8an, 20:00etan, urteko balantze, plangintza eta junta berritzea.

● **Zopajale Elkarteko Batzarra.** Otsailaren 9an, 19:30ean, urteko balantze, plangintza eta junta berritzea.

● **Euskal inauteriei buruzko erakusketa.** Elorripe tabernan. Hamar herri ezberdinetako pertsonaia euren inguruko azalpenarekin.

● Martxoaren 23an izango den **Udaberriko II. lore eta landareen azoka** azoka antolatzenko 3. bilera otsailaren 20an, arratsaldeko 6,30etan burutuko da udaletxean.

● **Kirol eskolarra.** Otsailaren 3rako iragarria zegoen mendi irteera 10ean izango da. Tolosako Laartera joango dira, goizeko 8,30etan plaza-tatik irtenda. Ondoren Tolosako inauterietara jaitsiko dira.

Udalaren esker ona Nestor Basterretxeari

Herrirako eskultura lana eskatu zaio

*Oroigarria,
herriaren
izenean,
Luli
Telleria
alkateak eta
Karmenxu
Etxeberria
zinegotziak
eman zioten
Nestor
Basterretxe
ari.*

Euskadiko Dantza Txapelketaren XXV. urteurrenean etortzerik izan ez zuela eta, pasa den urtarrilaren 26an egin zion Udalak San Joanetan egin beharreko errekonozimendua. Dantza txapelketaren sari nagusiaren egile izanik, urtero hutsik egin gabe, txapelketaren erreferentzia bihurtu denari, Joxemari Telleriak egindako pintura lana oparitu zitzaion, udal talde guztiak bertan zirela. Udaletxean burutu zen bilkura berean, ofizialki, Seguran kokatzeko eskultura bat eskatu zitzaion Nestor Basterretxeari. Nestorrek interes bereziz hartu zuen eskaria eta egin beharreko lana herriaren garapen planean kontestualizaturik, gaia, tamaina, materiala eta kokapena aztertzeotan geratu zen.



Beasaingo Antzizar kiroldegian 800 m²ko Fitness Zentro berritzailea

Taldekako fitness saioak antolatu nahi dira

Beasaingo Antzizar kiroldegia inbertsio eta ahalgin handia egin du Fitness Zentroaren berrikuntza lanean. Kalitate handiko ekipamenduak erosiz, proiektu berritzailea errealitatea da, Josi Insausti Beasaingo Udaleko Gazteri eta Kirol saileko lehendakariak adierazi duenez. "Emaizak zoragarriak izan dira. 4.000 bazkide baino gehiagoren mesederako apustu bikaina egin du Beasaingo Udalak. Gaur egun Fitness Zentroak 800 m² ditu", gaineratu du Insaustik.

Jardueretan ere berrikuntzak egin nahi dira Antzizar kiroldegian. Taldekako fitness saioak antolatu nahian, jardueretarako gela berria prestatu da eta dagoeneko martxan dira jarduera berriak. Jarraian dituzue deskribapenak:

Spinning bike

Taldeko saioak dira non musikaren laguntzaz txirrindu estatikoetan ariketa aerobikoa lantzen da. Txirrindu estatiko batean ibiltzea jarduera ikusgarria bilakatzen da. Edonork praktika dezake.

Body weight

Musikaren eta pesekin egiten diren saioak. Programa horretarako egokitutako barra eta



diskoekin taldekako saioetan entrenamendu espezifiko burutuko da kontzeptu berritzaile gisa. Ariketa sinple eta eraginkorretan oinarritzen da, giharketzeko saioen antzera.

Fit-ball training

Baloi handi batekin egiten den taldekako entrenamen-

dua da, koreografiaren bitartez lan aerobikoa eginez edo prestaketa fisikoko lana eginez gihardueraren tonifikazioa eta luzaketa lortuz.

Latin sesion

Musika latinoaren erritmo alai, dibertigarri eta ausartera moldatzen diren saioak. Lan

kardiobaskularra egiten da. Bestelako jarduera aerobikoen onuraz gain, partaideen arteko erlazioaren aukera eskaintzen du, musikaren laguntzaz, mugimendu sentsualen bitartez gorputz komunikazioa bideratuz, osasuna hobetzen den heinean.

Slow-gym

Soinketa lasaia non jarraian luzaketa asko egiten da. Beroketa edo atsedenerako ekin-tza hau jarduera osagarri bikaina bihurtu daiteke.

Aeroboxing

Entrenamendu kardiobaskularra non arte martzial, boxeoa eta aerobico-eko mugimenduak erabiltzen dira. Musika-ren laguntzaz egiten da.

Txiki-fitness

5 urtetik 11ra bitarteko haur-errentzat prestatutako programa osagarri eta hezitzailea da Txiki-Fitness.

Fitness+60

Oraingo eta geroko osasuna hobetzen duen adineko pertsonentzako fitness programa. Entrenamendu aerobikoa, indarra, malgutasuna eta oreka ere lantzen da. Programak doaneko mediku azterketa aurreikusten du.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ

Otsailak 14, 'Nueve reinas', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

Otsailak 21, 'En construccion', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

ITSASONDO

Otsailak 8, 'El odio', Ertoetxen, 21:30ean.

Otsailak 15, 'Ley 627', Ertoetxen, 21:30ean.

Otsailak 22, 'Mi nombre es Joe', Ertoetxen, 21:30ean.

LEGORRETA

Otsailak 14, 'Torrente 2. Mision en Marbella', Herri Zineman, 20:30ean.

Otsailak 21, '15 minutos', Herri Zineman, 20:30ean.

ORDIZIA

'Sin noticias de Dios',
Urtarrila k 11: 22:15
Urtarrilak 12: 19:30 - 22:15
Urtarrilak 13: 19:30 - 22:15
Urtarrilak 14: 19:30.



'Nueve reinas'
Fabian Bielinsky
(Argentina, 2000)

Bi gizonezko elkarren bila dabitza Buenos Aireko supermerkatu batean. Batak bestea topatu du eta honek hura konbentzitu. Argentinako krisi ekonomikoan bete-betea kokatzen dira, beste zenbait inozori ziria sartuz bizi diren iruzurgile eskas hauen ibilerak. Goseak burua bizkortzen omen du, eta hala dirudi, Bielinskyren lehen pelikulak ezustekotik ezustekora konatatzen baitigu istorio kaletar bat, guztiek guztiei iruzur egiten dietelarik... edo saiatu, baina, inor ez baitago us telkeria puntu batetik salbu.

antzerkia

ORDIZIA:

Otsailak 8, Herri Antzokian, gaueko 10,15etan, "Antzerki garaia" programa barruan, Txalo produkzioak "Bambulo" (euskaraz) lana eskainiko du.

bertsoak

MUTILOA:

Otsailak 8, Lierniko Mujika jatetxean bertso afaria: Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariekin.

musika

SEGURA:

Otsailak 16, 'Donosti Ereski Abesbatza'ren emanaldia. Komentuan, 22:00etan.

bestelakoak

BEASAIN:

Otsailak 13, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, Ezkialga Auzo etxean, 18:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lig-nae erakusketa, Igartza jauregian.

Otsailaren 28ra bitartean, Mary Francoren koadro erakusketa, Aterpe Tabernan.

Otsailean, Benito Canteroren argazkiak, Zinema Tabernan.

Otsailaren 10era arte, Alberto Torresen eskultura lanak, Usurbe antzokian.

Otsailaren 15etik 24ra, Coprodeli, Liman behartsuenei laguntzen lan egiten duen GKE-ren erakusketa, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Otsailaren 8tik 28ra, Barrena Kultur Etxean, Jokin Telleria artistaren pintura erakusketa.

 **mazda**
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN



JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



Izurri taldearen kontzertuak

Ordiziako Izurri taldeak 'Kontuz, deabruaren legea' diskoaren aurkezpeko kontzertuen bira egiten ari da. Kontzertuak, hil berri den Asier Iranzuegi taldekidearen omenez ari dira burutzen. Bilboko Kafe Antzokian eta Bartzelonan kontzertua eskaini zuten. Bartzelonan, 2.000 lagunengatik aurrean jo zuten. Martxoaren 2an bukatuko dute bira eta jarraian dituzte datozen kontzertuen datak:

Otsailak 8, Tolosako inauterietan, txosnetan.

Otsailak 16, Altsasuko inauterietan, Gaztetxean.

Otsailaren 23an, Legazpin.

Martxoaren 3an, Vianan.

ikusentzuneakoak

BEASAIN:

Otsailak 8, '2001eko mendi irteerak' diapositiba emanaldia, J.L. Ruizen eskutik, Aitzgorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

SEGURA:

Otsailak 14, 'Pekindik Gipuzkoara bizikletaz', Carlos Mañeruren emanaldia. Kultur etxean, 19:00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Otsailak 9-10: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

Otsailak 16-17: Lurnaga
(Kale Nagusia 4, - Ordizia). 943 881828.



Arg.: Egunkaria

Topagune eta Elkarriketarako Goierriko Ekimenaren eskutik

Euskal Herriaren bakeratzeari buruzko hitzaldiak Beasainen

Topagune eta Elkarriketarako Goierriko Ekimena taldeak antolatutako hiru hitzaldi izango dira datorren astean, Beasainen, Euskal Herriko bakeratzearen inguruan. Jarraian duzue egitaraua:

Otsailak 11, astelehena: 'Bakeratzea eta normalkuntza Euskal Herrian. Azterketa kritikoa eta ikuspegi desberdinak', Ramon Zallo EHUko katedradunaren eskutik. Gazteleraz izango da hitzaldia. Beasaingo Udaletxean, 19:30ean.

Otsailak 12, asteartea: 'Bakeratzea talde lana', Fabian Laespada, Deustuko Unibertsitateko Katedraduna eta Gesto por la Paz taldeko kidea. Gazteleraz. Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxean, 19:30ean.

Otsailak 14, osteguna: 'Justizia eta barkamena adiskidetzearen oinarri', Jose Mari Setien, Donostiako gotzain ohiaren eskutik. Elebiz. Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxean, 19:30ean.

ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

IKASTET AKADEMIA

Goierriko
Akademia
integrala

Interneten: [Kontsultatu irakasleari](http://kontsultatu.irakasleari)
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
<http://usuarios.tripod.es/ikastek>

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- ✖ Gai eta maila guztiak
- ✖ Lehen Hezkuntza
- ✖ DBH, DBHO, Moduloak
- ✖ Zikloak

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- ✖ Marrazketa
- ✖ Fisika
- ✖ Matematika
- ✖ Teknologia

IKASKETA ARAZOAK

- ✖ Errendimendua
- ✖ Ohiturak, metodoak
- ✖ Atentzioa
- ✖ Emozioen kontrola

UNIBERTSITATE MAILA

- ✖ Enpresaritza
- ✓ Kontabilitatea, kalkulua
- ✓ Fakturazioa, estatistika
- ✓ Matematika (finantzieroa...)

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Etxebizitzak

salgai

➡ Beasainen etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. 679556594.

➡ Idiazabalen pisua salgai. 91 m²koa. 609349630.

➡ Beasainen 85 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta sukalde berria. Egutera. 943028411.

➡ Ordizian etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea jarrita eta egongela argitsua. 669400513.

➡ Baserria salgai Zezaman. Terreno onekin. 943510851.

➡ Beasainen 2 logelako etxebizitza salgai. Eguzkitsua eta alai. 943027138. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

errentan

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 948539381.

Garajeak

salgai

➡ Zaldibian Ostatuburu etxean garajea salgai, entreplantarekin. 943881978.

errentan

➡ Lokal edo garaje itxian alokairuan hartuko genuke Beasainen. 943028881. Jon.

Animaliak

salgai

➡ Mastin pirenaiko eta pastor aleman gurasodun txakurkumeak salgai. Oso merke! Iluntzetan deitu. 605708502.

Bestelakoak

salgai

➡ Comanche Puluma 3 modeloko gurdi kanpina salgai. Egoera onean eta prezio interesgarrian. 943889345. Unai.

➡ Zeus markako errepideko bizikleta salgai. Kanbioak manillarrean ditu. Ez erabiltzeagatik oso egoera onean. Bizikletan ibiltzeko zapatilak emango nituzte. 943800336 - 605720890. Arratsalde edo iluntzetan deitu.

➡ Ordenagailurako programak eta jokoak, bertan ikusteko pelikula (divx formatoan) eta Dreamcast-erako jokoak saltzen ditut oso prezio onean. Seriotasuna eta kalitatea. 658751318. josex52A--hotmail.com.

➡ Gas gas HusuQvarna salgai. 92. urtekoa. Matrikuladuna. 943885006.

➡ Karabanarentzako estabilizadoreak salgai. 75 euro. 943725052.

➡ 3 urteko Rossignol eski pareak salgai. Fijazioak estrenatzeko. 670428820.

➡ Eskiak salgai. 2 metrokoak. Volki markakoak. Egoera onean.

15.000 pezeta edo 90 euro. 943886709 - 6463393334.

➡ Salgai 2000. urteko VW Bora TDI baten serieko Ilantak (6 aspa, 16"x6,5) bere kubierte-kin /205x55x16). Egoera onean. 330 euro. 943883164. Eguerdi eta gauean deitu.

➡ 'Jakintza bideak' entziklopedia salgai. 5 liburu. Euskaraz. Erabili gabeak. 943882467 - 626610384.

➡ Sekadora besoekin eta tintearentzako baporea salgai. 50.000 pezetan. 943883180.

➡ Sutarako haritz egurra saltzen da. 2 metrora moztua eta 5 pezetan kilo. Xabier. 943885006.

Ibilgailuak

salgai

➡ Volkswagen furgoneta salgai. Sukaldearekin eta ohearekin ekipatua. 620860285.

➡ Renault 19, 16 v. 140 zaldi, salgai. Urdina. SS-AN. 658701815.

➡ Mitsubishi Montero luzea, 2800 turbodiesela, salgai. 95. urtekoa. Ondo zaindua. 659422331.

➡ Hyundai coupe 1,6 16v slgai. 1999. urtekoa. 1.350.000 pezetan. Extrak: eskiatzeko soportek, kate automatikoak, faldoiak, alarma, kristal-jasogailu elektrikoak, ispilu elektrikoak, itxiera zentralizatua... 686334037. Arratsaldean deitu.

➡ Renault-5 Oasis auttoa salgai. Egoera oso onean. 200.000 pezeta. 19:00etatik aurrera deitu. 620256197.

➡ Scooter motoa salgai. Aprilia SR50DI. Zozketan tokatua, berria. 656415761.

➡ Seat Malaga 1.300 salgai. SS-AF. 72.000 km. ITV pasatuta eta aseguru abuzturarte. Oso ekonomikoa. 943887163.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Marlarrats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Lana

eskaerak

➔ Jatetxe baterako sukaldaria behar da. 943086505.

➔ Segurako Elorripe Herrikoan langile libe-ratua eta euskalduna be-har da. 943801002.

➔ Larunbat gauetara-ko neska bat behar da sagardotegirako. Ez da beharrezkoa esperien-tziaduna izatea. 943887726.

➔ Asteburuetarako ka-marera euskalduna be-har da. Esperientzia eta autoa izanez gero, ho-be. 943880044.

➔ Neska gazte euskal-duna behar da 9 urteko haurra, goizetan, esko-lara eraman eta etxera ekartzeko. 943028506.

➔ Klinika laguntzaile-ak, garbitzaileak eta su-kaldariak behar dira. Kurrikulumak bidali: Eulen. Esteban Lasa ka-lea, 2. Beasain.

➔ Sukaldaria behar da Lazkaon. Interesatuak deitu: 943162523.

➔ Neska edo emaku-me bat behar da Ordi-zian 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943160292. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Emakume euskal-duna behar da adineko emakume bat zaintzeko. 943161239.

➔ Gaintzan zerbitzari lanerako neska euskal-duna behar da. 943889848.

eskaintzak

➔ Etxeko lanak egite-ko edo adinekoak zain-tzeko Ordiziako emaku-mea eskaintzen da. Or-duka. 610901821.

➔ Mutil bat prest dago igeltseritza lanerako. Egun erdia. 678923512

➔ 24 urteko neska be-asaindarra, haurrak zaindu, dendari edo an-tzeko lanak egiteko prest dago, Beasain, Or-dizia eta Lazkao ingu-ruan. 687374559.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

TORNEROA, FRESATZAILE KONBENTZIONALA

Tolosan. Erref. 69731/1

4 PEOI ESPEZIALISTA (fabrikazio mekanikoa)

Tolosaldean. Erref. 70125/2

4 INKESTATZAILE

Donostialdean. Erref. 70054/1

FINANTZA AHOLKULARIA

Donostialdean. Erref. 69800/1

2 GABINETE LAGUNTZAILE

Donostialdean. Erref. 70098/2

INGENIARI TEKNIKO ELEKTRIKOA

Donostialdean. Erref. 69834/1

KALITATE TEKNIKO EZINDUA

Donostialdean. Erref. 69268/6

SPORTWEAR DISEINATZAILEA

Donostian. Erref. 69213/3

OBRA INSPEKTOREA

Madrilan.. Erref. 68908/3



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN



Iñausti

HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako
ogi naturala

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



Ataungo Ergoiena auzokoak 1961ean

Zutik, ezkerretik eskuinera: M. Jose Apalategi, Pilar Arratibel, Manu Agirre, Marisa Ezkerra, Socorro irakaslea, M. Eugenia Agirre, M. Karmen Aldanondo, Luis Reta, Martin Aierbe, Juan Agirre, Pedro Perez eta J. Luis Perez.

Tarteko lerroa: Felix Arratibel, Jose Mari Begiristain, Agustin Goikoetxea, J. Ignazio Apalategi, Justo Dorronso-ro, Ignazio Arratibel, Jose Aldanondo, J. Ramon Goikoetxea.

Aurrean: Arantxa Zeberio, Juan Tomas Begiristain, M. Angel Apalategi, Joakin Arratibel, Jose Luis Agirre, Luis Aldanondo eta J. Mari Perez.

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin

Otsailaren 9an irekiko dugu

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76 ABALTZISKETA

ARAMAKO TABERNA

berriro zabalik!

Menuak

L

A

steburuetako
menuak

L

K

arta

☎ 943 888 953

Aramako plaza ARAMA

Barandiaran ZERAMIKAK

- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN



AZKEN ETXEBIZITZAK

Eragilea:

ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:



943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

ETXEBIZITZA ADOSATUAK (SEGURAN)



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak guztioi!

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK


**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1

BEASAIN



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

Jarduera profesional luze baten ostean gure zentru berria eskeintzen dizugu, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. Teknologi aurreratuenak zure esku jarri, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai inplantologi, estetika edota zirugi mailan.

Erabateko hortz klinika integratua.

SMC

ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAK

HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbiztu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbizturik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)